

Haurrak eta telefono mugikorrak

Mugikorren erabilerak zein onura eta zein arrisku dituzte? Eta hurrek edo gaztetxoek mugikorra izatea komenigarria al da? Gai honen bueltan, ataza hauek egingo dituzu:

- * Zenbait galderari erantzunez, gaiari buruzko iritzia eman.
- * Artikulu labur bat irakurri ondoren, galderei erantzun eta artikulurako izenburu egokia aukeratu.
- * Elkarrizketa entzun ondoren, egiak eta gezurrak identifikatu.
- * Testu bateko hutsuneak osatuz, aholkuak emateko zenbait egitura landu.
- * **Azken ataza:** zure lagun bati aholkuak emateko mezua idatzi.



Haurrak eta mugikorrak: zuk zer uste duzu?

Guraso eta irakasle asko kezkatuta daude hurrek mugikorrak oso eskueran dituztelako eta gero eta errazago ematen zaizkielako. Oraingoz, gaiari buruz duzun esperientzia eta iritzia emateko, galdera hauei erantzungo diezu.



1. Zure ustez, haur edo nerabe bati noiz eman behar zaio mugikorra?

- 9-10 urte dituenean
- Berak eskatzen duenean
- Behar duela ikusten dugunean
- Gutxienez 12 bat urte dituenean

2. 12 edo 13 urteko nerabe batek mugikorra behar duela esateko zein arrazoi emango zenuke?

- Bere lagunekin edo familiakoekin komunikatzeko tresna garrantzitsua da.
- Gurasoentzat nerabea kontrolatzeko tresna bat da; mugikorrari esker badakigu non dabilzan.
- Entretenezko eta informazioa eskuratzeko tresna oso baliagarria da.
- Beste arrazoiren bat?

3. 10 bat urteko haur asko ikusten dira gaur egun mugikorrek eskuan dituztela. Horri zein arrisku ikusten dizkiozu?

- Edozein motatako informazioa eskuratzeko aukera dute, eta askotan hori arriskutsu izan daiteke.
- Norberaren edo beste baten argazkiak oso erraz zabaltzen direnez, irudien erabilpen txarra egin daiteke.
- Bere ingurukoekiko komunikazioa gutxitzeko arriskua ekar dezake.
- Besterik?....

Mugikorren onurak eta ondoezak

Artikulu honetan, mugikorren erabilerari buruzko gogoeta txiki bat egingo zaigu. Irakurri arretaz eta ondoren, erantzun beheko galderei. Lagungarri modura, testuaren azpian, azpimarratuak dituzun hitzen esanahia aurkituko duzu.



IZENBURUA:

Telefono mugikorraren fenomenoak egundoko **gorakada** izan du espainiar estatuan azken urte hauetan. Orain bertan gehiago dira telefono mugikorrak finkoak baino. 10-15 urteko haurren % 50ek eta 16-17 urteko gazteen % 80k badute telefono mugikorra.

Telefono mugikorra orain dela urte batzuk sortu zen luxuzko artikulu gisa, baina bere erabilpena berehalaxe orokortu da. Desplazamenduak egin beharra **saihesten** digute, urruti dauden pertsonetikiko harremana **ahalbidetzen** digute, inoiz argazkien bidez haiek ikustea ere bai, eta oso baliagarriak gerta daitezke zenbait larrialdi kasutan. Telefonía mugikorrak suposatuen **iraultza** teknologikoari bere fenomeno soziala gehitu behar zaio. Gaur egun ez da harrigarria gertatzen, edozein hiritako kalean gabiltzala, beren poltsikoko telefonoarekin hizketan edo mezuak idazten ari den jendea ikustea.

Baina baditu bere alderdi txarrak ere, telefono mugikorraren erabilpenak intimitatearen galera ekarri baitu: lehen zenbait leku publiko zein pribatutan egon ohi zen isiltasuna orain **noiznahi** eteten dute era guztietako zarata, soinu eta melodiek edo modan dagoen idolo musikalen baten abestiek. Azken urte hauetan mugikorrarekiko adikzio kasu batzuk agertu dira eta **adituak** aztertzen ari dira mugikorra ez ote den bihurtuko gazteriarentzako droga berri bat. Arazo honen aurrean, ikerlan batek ondorioztatu zuen 10-18 urteko gazte espainiarrek batez beste astean 12 ordu ematen dutela telefonoz hizketan.

Gazte eta helduek gutxieneko ezagutza batzuk eduki beharra daukate poltsikoko telefonoak **zuhur** eta segurtasunez analizatu, erosi eta erabili ahal izateko. Ezinbestekoa da hain bizkor eboluzionatzen duen teknologia berri hau ezagutzea: bere **xehetasunak**, erabiltzeko modu eta premiak, segurtasuna, erabilpen praktika okerrak eta zuzenak eta eskaintzen dituen edo eskain ditzakeen zerbitzuak.

www.consumopolis.es webgunetik hartua. Testu moldatua

Hiztegia

Gorakada: igoaldi, "aumento"

Saihestu: ekidin, "ebitatu"

Ahalbidetu: posible egin, aukera eman

Iraultza: aldaketa sakona, erreboluzioa

Noiznahi: edozein unetan, edonoiz

Aditu: horretaz dakiena, jakintsua

Zuhur: zentzuz, ondo pentsatuta

Xehetasun: zehaztasuna, detailea.

1. Telefono mugikorrei esker hainbat gauza egin ditzakegu. Hauetatik zein ez da aipatzen artikuluan?

- Urruti dauden pertsonekin harremanak izan ditzakegu, mugitu gabe.
- Larrialdi kasuetarako baliagarria da.
- Pertsona berriak ezagutzeko aukera ematen digu.

2. Eta mugikorren erabilerak dituen alderdi txarren artean, zein aipatzen da artikuluan?

- Mugikorrak asko erabiltzen direnez, aurrez aurreko harremanak gero eta gutxiago dira.
- Mugikorra, 12-18 urteko gazte askorengan droga bihurtu da.
- Zenbait toki publiko eta pribatutan, lehen zegoen isiltasuna orain eten egin da.

3. Mugikorrak erosi eta egoki erabiltzeko zer da ezinbestekoa? Hauetatik zein aipatzen da artikuluan?

- Kontuz eta behar dugunean bakarrik erabiltzea.
- Gure beharretara egokitzen den mugikorra erostea.
- Teknologia berri honek dituen xehetasunak, erabiltzeko modua, eskaintzen dituen zerbitzuak eta abar ondo ezagutzea.

4. Artikulu honi zein izenburu jarriko zenioke? Artikuluaren mezua kontuan hartuta, aukeratu izenburu egokiena.

- Gazte guztiak mugikorren mende bizi dira.
- Mugikorren iraultza teknologikoa eta soziala: abantailak eta alderdi ahulak
- Mugikorrek komunikazioa lapurtzen digute.

Noiz eman telefono mugikorra haurrari?

Noiz eman behar diegu mugikorra umeei? Galdera horretatik abiatuta, Izaskun Estonba irakasleak gogoeta egin eta gurasoei zenbait aholku emango dizkie egon daitezkeen arriskuak saihesteko. Entzun elkarrizketa eta ondoren, egiak eta gezurrak identifikatu behar dituzu.



(haurrak_tel_mugikoramarauna_mp3.mp3)

	EGIA	GEZURRA
Irudien bitartez min handia egin daitekenez, nerabeei debekatu egin behar genieke Mugikorrek erabiltzea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Egindako ikerketen emaitzen arabera, gure seme-alabak gero eta gazteago hasten Dira mugikorrek erabiltzen.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Garrantzitsua da gure hurrei mugikorra nola erabili behar duten erakustea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Aspalditik arazo izan dira 9 eta 10 urteko haurrak, eskoletara mugikorrekin etortzen zirelako.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Erabaki horren arrazoietako bat da mugikorrekin haurrak asko distraitzen direla.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Arazoa saihesteko erabaki da eskoletan ezin dela mugikorrik erabili.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Izaskunek gurasoei aholkatzen die beren hurrei mugikorrek emateko adina atzeratzea.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Mugikorrek duten arrisku etako bat da hurrek benetako komunikazioa zer den ahazten dutela.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>



TALDERAKO PROPOSAMENA

* Mugikorren zenbait arrisku aipatu ditu Izaskunek, adibidez, irudien erabilpen okerra. Zuek zein beste arrisku ikusten dizkiozue? Komentatu taldean.

* Gure hurrek mugikorra egoki erabiltzeko zer egin dezakegu gurasook? Bat izan daiteke: ondo esplikatzea eta adostea zertarako erabil dezaketen eta noiz. Besterik bururatzen zaizue? Egin zerrenda bat eta komentatu taldekoekin.

Kontuan hartzeko aholkuak

Ikusi dugunez, hurrei mugikorrek azkarregi emanaz gero, hainbat arrisku izan ditzakete. Irakasle batek gurasoei hainbat aholku eman dizkie, baina guk zenbait egitura ezabatu ditugu. Erantzun zuzena aukeratu ondoren, txerta itzazu. Ariketa egin baino lehen, irakur itzazu beheko azalpenak eta adibideak.

Aholkuak emateko egitura hauek erabil daitezke:

Baldintzazko esaldiak

-(e)z gero (instrumental mugagabea + gero) (*)

Aukera izanez gero, hobe duzu haurrari mugikorra beranduago erostea.

Hurrei nahi dutena egiten utziz gero, gero ere nahi dutena egingo dute.

(*) baiezko esaldietan erabiltzen da.

-t(z)en ba

Aukerarik (izaten) baduzu, hobe duzu haurrari mugikorra beranduago erostea.

Hurrei nahi dutena egiten uzten badiezu, gero ere nahi dutena egingo dute.

Nominalizazioak

Komenigarria da.....t(z)ea

Beharrezkoa (derrigorrezkoa) **da**..... t(z)ea

Garrantzitsua da..... t(z)ea

Saiatu behar duzu(e)..... t(z)en

MUGIKORRAK ARDURATSU ERABILTZEKO AHOLKUAK:

Zure 9 urteko haurrak mugikorra (1) [] , lehendabizi saiatu adin hori (2) [] , ze oraindik oso goiz da haurrak mugikorra izateko. Kasu guztietan, behar-beharrezkoa da haurrari (3) [] mugikorra zertarako erabili behar duen, eta noiz erabil dezakeen. Eta kontuan hartu zure haurrari mugikorra (4) [] , bere intimitatea arriskuan jar dezakezula; izan ere, tresna hauen bidez irudiak oso erraz zabaldu daitezke eta horregatik oso komenigarria da zure haurrak mugikorra zertarako erabiltzen duen (5) [] .

Eta horrez gain, saiatu behar duzu zure haurraren argazkiak (6) [] . Hala ere, norbaitek whatsapp-aren bitartez argazki horiek (7) [] , ez hitz egin ez ezagunekin argazki horietaz, arriskutsua izan daiteke-eta.

Gurasook zuen haurrentzat eredu izan behar duzue. Horregatik, zuk edo zure senarrak afaltzen ari zareten bitartean mezurik (8) [] , oso garrantzitsua da mezu hori (9) [] , hartara hurrek ere horixe egingo dute eta. Argi adierazi haurrari zenbait egoeratan edo tokitan debekatuta dagoela (10) [] eta beste batzuetan, berriz, errazago onar daitekeela.

Aukerak

(1) eskatu dizunez gero
eskaten badizu
eskatuko badizu

(2) atzeratzea
atzeratzen
atzeratzeko

(3) ondo esplikatzen
ondo esplikatzea
ondo esplikatu

(4) goizegi emanez gero
goizegi emango badiozu
goizegi emateaz gero

(5) ondo zaintzea
ondo zaindu
ondo zaintzen

(6) ez zabaltzeaz
ez zabaltzen
ez zabaltzeko

(7) zabalduz gero
zabaltzeaz gero
zabaldu duenez gero

(8) jasotzen baduzue
jasoko baduzue
jasotzen bazenituen

(9) ez irakurri
ez irakurtzen
ez irakurtzea

(10) mugikorra erabiltzea
mugikorra erabiltzen
mugikorra erabiltzeagatik

Hauek dira nire aholkuak

Zure lagun batek arazoak ditu 9 urteko semearekin, mugikor bat eskatzen ari zaiolako, eta mezu bat idatzi dizu aholku eske. Behean duzu idatzi dizun mezua. Idatziozu erantzuna aholkuak emanaz. Nahi izanez gero, aurreko ariketan landutako egiturak [-(e)z gero/-t(z)en ba..., Beharrezkoa da/Hobe duzu... -t(z)ea] erabili ditzakezu.

MEZU ELEKTRONIKO HAU JASO DUZU:

Kaixo Ana!

Badakit aspaldian ez dugula elkarrekin hitz egin, eta ziurrenik orain harritu egingo zara zuri idazten ari naizelako. Baina, kontua da oso kezkatuta nagoela nire seme txikienarekin. Aurten jaunartzea egingo du, eta berak aspalditik mugikorra oparitzea nahi duela esan digu. Niri oraindik oso umea iruditzen zait mugikor bat oparitzeko. Ez duzu horrela uste? Bere gelako haur gehienek omen daukate, eta zenbait gurasok esaten didate mugikorrari esker orain beraien haurra kontrolatuago daukatela. Haurra kontrolatzeko mugikor bat oparitu? Zuk hurrekin esperientzia handia duzunez, zure aholkuak beharko nituzke. Komeni al da 9 urteko haurrari mugikorra erostea? Eta gero nola kontrolatu noiz eta nola erabiltzen duen?

Ikusten duzun bezala, arazo potolo baten aurrean nago. Horregatik, zure aholkuak asko eskertuko nituzke.

Beno, ba, Ana, zure erantzunaren zain geratzen naiz.

A, eman gorantziak Aitorri eta zure alaba panpoxa horri. Muxu handi bat!



Idatzi erantzuna zure lagunari, aholkuak emanaz. **Eredua ikusi** botoian klikatuta, adibide bat aurkituko duzu.

Zuzenketa-orria

Mugikorren onurak eta ondoezak

1. Telefono mugikorrei esker hainbat gauza egin ditzakegu. Hauetatik zein ez da aipatzen artikuluan?

- Urruti dauden pertsonekin harremanak izan ditzakegu, mugitu gabe.
- Larrialdi kasuetarako baliagarria da.
- Pertsona berriak ezagutzeko aukera ematen digu.

2. Eta mugikorren erabilerak dituen alderdi txarren artean, zein aipatzen da artikuluan?

- Mugikorrek asko erabiltzen direnez, aurrez aurreko harremanak gero eta gutxiago dira.
- Mugikorra, 12-18 urteko gazte askorengan droga bihurtu da.
- Zenbait toki publiko eta pribatutan, lehen zegoen isiltasuna orain eten egin da.

3. Mugikorrek erosi eta egoki erabiltzeko zer da ezinbestekoa? Hauetatik zein aipatzen da artikuluan?

- Kontuz eta behar dugunean bakarrik erabiltzea.
- Gure beharretara egokitzen den mugikorra erostea.
- Teknologia berri honek dituen xehetasunak, erabiltzeko modua, eskaintzen dituen zerbitzuak eta abar ondo ezagutzea.

4. Artikulu honi zein izenburu jarriko zenioke? Artikuluaren mezua kontuan hartuta, aukeratu izenburu egokiena.

- Gazte guztiak mugikorren mende bizi dira.
- Mugikorren iraultza teknologikoa eta soziala: abantailak eta alderdi ahulak
- Mugikorrek komunikazioa lapurtzen digute.

Noiz eman telefono mugikorra haurrari?

	EGIA	GEZURRA
Irudien bitartez min handia egin daitekenez, nerabeei debekatu egin behar genieke Mugikorrak erabiltzea.	X	✓
Egindako ikerketen emaitzen arabera, gure seme-alabak gero eta gazteago hasten Dira mugikorrak erabiltzen.	✓	X
Garrantzitsua da gure haurrei mugikorra nola erabili behar duten erakustea.	✓	X
Aspalditik arazo izan dira 9 eta 10 urteko haurrak, eskoletara mugikorrek in etortzen zirelako.		✓
Erabaki horren arrazoietako bat da mugikorrek in haurrak asko distraitzen direla.	✓	X
Arazoa saihesteko erabaki da eskoletan ezin dela mugikorrik erabili.	✓	X
Izaskunek gurasoei aholkatzen die beren haurrei mugikorrak emateko adina atzeratzea.	✓	X
Mugikorrek duten arrisku etako bat da hurrek benetako komunikazioa zer den ahazten dutela.	X	✓

Kontuan hartzeko aholkuak

MUGIKORRAK ARDURATSU ERABILTZEKO AHOLKUAK:

Zure 9 urteko haurrak mugikorra (eskatzin badizu), lehendabizi saiatu adin hori (atzeratzen) ze oraindik oso goiz da haurrak mugikorra izateko. Kasu guztietan, behar-beharrezkoa da haurrari (ondo esplikatzin) mugikorra zertarako erabili behar duen, eta noiz erabil dezakeen. Eta kontuan hartu zure haurrari mugikorra (goizegi eman ez gero), bere intimitatea arriskuan jar dezakezula; izan ere, tresna hauen bidez irudiak oso erraz zabaldu daitezke eta horregatik oso komenigarria da zure haurrak mugikorra zertarako erabiltzen duen (ondo zaintzin)

Eta horrez gain, saiatu behar duzu zure haurraren argazkiak (ez zabaltzen). Hala ere, norbaitek whatsapp-aren bitartez argazki horiek (zabaltuz gero), ez hitz egin ez ezagunekin argazki horietaz, arriskutsua izan daiteke-eta.

Gurasook zuen haurrentzat eredu izan behar duzue. Horregatik, zuk edo zure senarrak afaltzen ari zareten bitartean mezurik (jasotzen baduzue), oso garrantzitsua da mezu hori (ez irakurtzin), hartara hurrek ere horixe egingo dute eta. Argi adierazi haurrari zenbait egoeratan edo tokitan debekatuta dagoela (mugikorra erabiltzin) eta beste batzuetan, berriz, errazago onar daitekeela.

Hauek dira nire aholkuak



Idatzi erantzuna zure lagunari, aholkuak emanez. **Eredua ikusi** botoian klikatuta,

adibide bat aurkituko duzu.

(Kaixo, Ane, aspaldiko! Bai, nik uste dut erabaki garrantitsua baten aurrean zaudela. Zure 9 urteko haurrak mugikorra eskatzen badizu, lehendabizi saiatu adin hori atzeratzen, ze oraindik oso goiz da haurrak mugikorra izateko. Eta hala ere, erostea erabakiz gero, behar-beharrezkoa da zure haurrari ondo esplikatzea zertarako erabili behar duen, eta noiz erabil dezakeen. Eta kontuan hartu goizegi emanez gero, bere intimitatea arriskuan jar dezakezula eta horregatik oso komenigarria da mugikorra zertarako erabiltzen duen ondo zaintzea. Bestalde, saiatu bere argazkiak ez zabaltzen. Eta norbaitek whazapen bitartez argazki horiek zabalduz gero, ez hitz egin ez ezagunekin argazki horietaz, arriskutsua izan daiteke-eta. Gurasook gure seme-alabentzat eredu izan behar dugu. Horregatik, zuk edo zure senarrak afaltzen ari zareten bitartean mezuren bat jasoz gero, oso garrantzitsua da mezu hori ez irakurtzea, hartara hurrek ere horixe egingo dute eta. Beno, ba, oraingoz, nik hauxe egingo nuke, Ane. Eta nahi baduzu, egun batean geratuko gara kafetxo bat hartu eta lasai-lasai hitz egiteko. Beno, ba, neska muxu handi bat, eta nahi duzunera arte.)

Transkripzioa

Noiz eman telefono mugikorra haurrari?

ESATARIA – Haurrak eta telefono mugikorrak; hori aipatu dizuegu lehen, Izaskun Estonbarekin gaur hizpide izango dugun gaia eta iritsi da Izaskun. Kaixo egunon.

IZASKUN ESTOMBA – Egunon!

ESATARIA – Ongi etorri amaraunera.

I.E. – Mila esker!

ESATARIA – Zenbat gurasoren kezka eta buruhaustea haurrak eta telefono mugikorrak; eman behar zaizkie?, ez zaizkie?, zein adinetan?, zertarako?, noiz, non, nola erabili behar dugu telefono mugikorra ezta? Eta haurren kasuan, ze egia da ikerketak egiten dituzte etengabea eta bueno emaitzek diotena da, geroz eta gazteago, geroz eta haurrigo hasten direla honelako aparailuekin, telefono mugikorrak eta erabiltzen, eta noski gurasoak arduraturik Izaskun.

I.E. – Bai, gurasoak batetik, eta gu irakasleok bestetik. Ze ... ikastolan arazo bihurtzen dira. Bihurto izan dira, esan nahi dut orain dela urte gutxitik hona, eta bueno ba hainbat erabaki ba hartu behar dira horren inguruan, arazo diren momentutik. E ... orain arte arazo genituena, zuk ongi aipatu duzun bezala, ba, D.B.H-ko ikasleekin, ba nolabait hamabi urtetik gorako ikasle horiekin genituen, horiek zirelako ba , tresna hauek ikastolara ekartzen zituztenak. Baina bai, egia da, konturatzen ari gara ba adinean behera datozela eta geroz eta ikasle gehiago datozkigula ba, bederatzi urtetik aurrera eta abar.

ESATARIA – Bueno e ... , aipatu duzu ikastetxetako arazoa ere badela hau, Noski, ze gaztetxo hauek telefonoak hartzen dituzte eta eraman egiten dituzte, sartu egiten dituzte ikastetxeetara ezta? Eta horren ondorioz, oso oker ez banaiz, ikastetxe batean baina gehiagotan, arau batzuk eta erabaki batzuk hartu behar izan dira.

I.E. – Ba, bai hartu behar izan dira ...

ESATARIA – Nola jokutzen da honelakoetan ikastetxeetan?

I.E. – E ... arazoa den momentutik, arazoa saihesten saiatu behar dugu, beraz erabakia da ikastolan ezin direla erabili. Nire ustez erabakia beharko luke ikastolara ezin dira ekarri baina ulertzen da badaudela denbora libre batzuk eta kasu horiek errespetatu beharko liritekeela eta abar, eta orduan ba nolabait onartzen zaie ekartzea baina ez erabiltzea.

ESATARIA – Eta muga dago jarrita D.B.H-n gutxi gorabehera?

I.E. – Ez, ez,

ESATARIA – Orain arte zegoen.

I.E. – Orain arte zegoen.

ESATARIA – Baina beherantz doa muga hori.

I.E. – Beherantz doa muga hori , bai, bai.

ESATARIA – Orduan ...

I.E. – Ikastolan gauza hauetarako egoten dira protokoloak eta erabakiak eta adostutako jokabide motak eta orain arte genituen ba etapa batzuentzako jarrita eta orain ba horiek aldatu egin..., bueno zabaldu egin behar dira.

Esataria- Eta erabaki hori ikastetxeetan orokorrean hartu da?

I.E- Bai, bai, nik uste dut ikastetxe guztiak badaudela honen gainean, eta ardura dela. Ba, batetik, ikasleak asko distraitzen direlako, hori helduak bezala.

Esataria- Dudarik gabe, distrakzioa ekar lezake telefono mugikorraren kontuak eta gero, hor, beti aipatzen da ezta? Irudiak erabiltzearena, argazkiak erabiltzearena, zabaltzearena. Arrisku hori ere badago, nola erabiltzen den, hori inportantea da.

I.E- Bai. Ni ez naiz bereziki gailu honen aurka, edo ez. Iruditzen zait aukera asko ematen dituela, tresna oso egokia izan daitekeela eta abar, baina noren eskuetan ari gara tresna hau uzten? Eta irudien trataerak badu bere arriskua. Azken finean, zu kalean zaude, ez dakizu zeinek, noiz eta nola ari zaizun edo argazkiak ateratzen, edo grabazio

bat egiten, eta ez dakizu horren erabilera gero nola izango den.

Esataria- Baina min egin lezake.

I.E- Eta min egin lezake. Zuk guraizearekin min hori egiteko asmorik ez zenuen bezala, ba irudi batekin min egin dezakezu. Eta, eta zentzu horretan, adin batean uste dut oraindik kriterioak, moralak eta jokabideak ez daudela guztiz ezarrita. Eta konturatu gabe, pentsatu nahi dut gehienetan horrela izaten delako, konturatu gabe, min handia eman daiteke. Eta horren zaintza edo egin beharko genuke.

Esataria- Gertatzen da. Eta gurasoei zer esango zenieke Izaskun?

I.E- E, batetik, atzeratzea adinean ahal duten guztia, saiakera hori egiteko. Badituzte urte pila horrelako tresnak esku artean izateko, eta hobeak ere etorriko dira ziurrenik, oseake lasai.. Beste guztietan esan dugun bezala: ez aurreratu haurren beharretara. Adibidez, eskatzen ez baldin badu, nik ez nioke emango ezta txoratuta ere. Ez aurreratu beharretara, eta gero saiatu atzeratzen, eta gero, erakutsi erabiltzen; arau batzuk jarri, esan non bai, eta non ez, eta adibidez, nik aholku bezala esango nieke "ikastolara ezingo duzu eraman", garbi geratu dadila.